

FAXISMOA NAFARROAN 1936.az GEROZTIK

Galburuak fusil bihurtu zirenean

Josu Chueca Intxusta

Hutsune historiografikoen artean Faxismoari dagozkionak oso nabariak ditugu. Mugimendu honi buruzko lanak orokorregiak edota alderdikeriak jotako oroimen-liburuak ditugu gehienbat. Lantxo honen bitartez, lurralde zehatz batean, Nafarroan hain zuzen ere, 1936.eko abagadunean gorpuztu zen mugimendu falangistera hurbiltzen saiatzen gara. Errepublikako urteetan indar politiko honen partaide eta ahaleginek porrota izan zuten arren, gerratea hasita, tradizio handiko karlismoak bezainbat mobilizatu kaleratzea lortu zuten.

Nondik zetozen falangeratu berri hauek, zeintzuk izan ziren eskuindar hauen mintegi zein bitartekari ideologiko eta propagandistikoak, eta, gerra ondorengo urteetan, karlismoarekin alderatuz, zer nolako bilakabide politikoa izan zuten, dira bertze faktoreen artean aztertu ditugun arazoak.

Faxismoaren fenomeno politikoa jorratzen dugunean arazo anitzekin topa gaitezke. Batzuk hiztegi politikoari dagozkionak, bertze batzuk ideologia edo mugimendu politiko honen ondorio edota eredu desberdinei lotuta daudenak.

Teoriatik tokian tokiko ikerketara doan jauzia burutzen dugularik, desberdintasun ugariko errealitateak dituen alde zein ñabardura asko eskaintzen dizkigu. Horrelako zerbait suertatzen da Nafarroako historiari begiratu gero, hau da, Estatu espainolean faxismoak gauzatu zuen saio arrakastatsuenaren eragina zein bilakaera gertutik aztertzen dugunean.

Alde batetik, arras ezaguna denez, eta historialari gehienek azpimarratzen dutenez, 1936.eko altxamendu militarri Nafarroan bertze masen mugimendu bat gehitu zitzaion. Orduko partaide eta lekuko orok bat datoz erraterakoan altxamenduaren ahaleginetan Nafarroaren partaidetza oso masiboa izan zela, doi-doi erabatekoa.

Gaurko ikerlariek ere, izkutuan zeuden zenbait aspektu azaleratu arren (Gipuzkoa eta mugaz bertzaldera ezkertiar, errepublikar eta nazionalista nafarrek burututako ihesaldiak, sektore hauek pairatutako jazarkunde ikaragarria...) ¹ ez dute zalantzetan jarri alderdi eskuindarren egundoko eragina. Julio Arosteguiaren hitzetan: *1936.eko Nafarroan, baldintza sozioekonomikoek eta, gizaldi bat baino gehiago iraun eta I. Errepublikan zehar bizi eta handitu ziren tradizio politikoek bat egin zuten,*

*lurralde hau gune kontrairaultzaile handien bihurtaraziz.*²

Errealitate historikoak arrazoia ematen dio historialari andaluziar honi. Izan ere, gerrak mobilizatutako jende-kopuruari begiratu, Espainiako lurraldeen artean, bolondresen koefizienterik altuena izan zuena, Nafarroa izan zen. Lehenengo asteetan alde frankistak mobilizatu zituen 35.000 gizonetatik 10.000 nafarrak ziren, bertze era batez erranda, Frankoren armadaren alde atera ziren boluntarioetatik, hirutik bat nafarra zen.³

Mobilizazio izugarri hau aztertzeko gaur egun arte burutu izan diren lanak sasihistoria hagiografiko batean koka ditzakegu. Eskuindarrek idatziriko oroimen-lan apologetikoak, Del Burgo, Arraras, Aznar, Iribarren, García Serrano, Nagore, Lizarzarenak... etab. alderdikeriak jota daude, garaileen ikuspuntuak isladatzeaz gain, haiek burututako basakerien justifikazioaren bila dabiltzalarik.⁴ Izan ere, azken urteotan, zenbait ikerlan berriri esker, 1936.eko uztailaren 19an arrakastaz azaleratu zen mugimendu eskuindar-raren zenbait eremu eta ezaugarri argituz doazen arren, oraindik ere, galdera askok erantzunik gabe dirau.

Errate baterako: 1931.etik bertatik hasi zen Errepublikaren aurkako mobilizazioa, hain zuzen ere, zer neurritaraino Faxismoaren esparruan koka daiteke? Zer ezaugarri sozioekonomiko, kultural, ... zituzten gerrara zihoazen boluntarioak? Osatzen zuten multzoa homogenoa al zen? Zer neurritaraino bat egin zuen edo ezagutzen zituzten arrazoi zein

bitartekari ideologiko-politikoak? Zergatik eta nola erdiko klaseetako buruzagi politikoek beheko nekazari eta pobreei itxaropen ustezko *idealak*, hots, antzinako ohituren eta foruen defentsa, gizarte tradizionalaren osagarrien iraupena, etab. eskaintzen zizkieten bitartean, aginte politikoa ukatzen zien?

Galdera guzti hauei nolabaiteko erantzun egokiak emateko, oso premiazkoak ditugu lekuan lekuko ikerlanak burutzea, baita mugimendu politiko desberdinetako eratze-prozesua eta bilakaerari arreta eskaintzea ere. Zentzu honetan Falangea eta karlismoaren artean, ikerketen maila kuantitatibo zein kualitatiboari begiratuta, dagoen desberdintasuna nabarmena da erabat: Karlismoa jorratu samarra izan baldin bada ere, Falangea berriz, ikerlanen umezurtza dugu oraingoz.⁵ Mugimenduhoni buruz dakiguna arras exkasa da. Alde batetik burutu dituzten ikerketak Estatu mailako ikuspuntutik eginak direnez, tokian tokiko ñabardurak zokoratzen dituztelako. Eta bertzetik, gehienbat maila ideologiko eta politikoak aztertu arren, hutsune anitz ukitu gabe uzten dituztelako.⁶

Jakina denez faxismotik sektore politikorik hurbilena, bai ideologikoki bai martxan jarri zuen mimetismo politikoarengatik, Falangea izan zen. Indar politiko hau 1936.eko gerratea ailegatu baino lehenagoko urteetan oso ahula zen, bai Estatu zein Nafarroa mailan. Lurrean honetan mugimenduhori bultzatu zuten bi aitzindariak Julio Ruiz de Alda eta Aniceto Ruiz Castillejo ditugu. Azken hau Tuterakoa

zen, ogibidez sendagilea, eta gerra ondorengo urteetan Teruelgo gobernadore zibila izanzen zena.

Bertzea, Falangearen historian garrantzi handiko gizona dugu. Dakigunez, bera izan zen Jose Antonio Primo de Rivera eta Alfonso Garcia Valdecasas-ekin batera, Falangeak izan zuen lehen triunbiratuko partaidea. Madrilgo Komediako mitinean, Falangearen estraineko ekitaldi politikoan, alegia, baita bertze anitzetan ere parte hartu zuen Lizarrako seme honek.⁷ Hala ere orduko lekukoak, bere anaia Pablo, Juan Antonio Ansaldo, Ramiro Ledesma Ramos eta gaur egungo ikerlari gehienak bat datoz erraterakoan, hizlari-eginbeharretan baino gehiago eratzaille bezala nabarmentzen zela.⁸

Lanbidez militarra, ospe handia hartu zuen 1926.ean Pablo Rada eta Ramon Francorekin *Plus Ultra* hegazkinaz Atlantiarra zeharkatu zutelarik. Ordutik gutxira, bilakaera politiko erabat kontrajarria izan zuten abenturakide ohi hauek. Ramon Franco eta P. Rada II. errepublikaren aldeko mugimenduetan jo eta ke aritu ziren bitartean, Ruiz de Aldak 1931.eko erregimen berria aldarrikatu bezain laster bertze kontserbadoreekin harremanetan jarri zen erakunde eskuindar bat, errepublikaren aurkakoa, prestatzeko.

Urte horretako maiatzean, hain zuzen ere, Ramiro Ledesma Ramos eta *La Conquista del Estado* aldizkariaren inguruan zegoen taldeakari atxiki zitzaizkion Ruiz de Alda eta bertze militar batzuk. Europako zenbait

lurraldetan, gorantza zihoazen mugimendu ultraeskuindarren oihartzun espainiarra izatea nahi zuten baina arrakasta gutxiko saio baten maila ezin zuten gainditu. Hala ere, horrelako aldizkari eta erakunde faxistak Julio Ruiz de Alda bezalako aitzindari eskuindarren iritziak zabaltzen hasi ziren. Erraterako *El Fascio* deitutako gazetan, argi eta garbi plazaratzen zituen militar nafarrak bere norabide politikoaren asmoak: *Behar duguna mugimendu gartsu eta oldartsua da, belaunaldi berriei zuzendua eta gizarte mailan, oinarri handikoa, intelektualak eta langileak batera bilduz*.⁹

Idea hauek, 1933. geroztik gauzatzen hasi ziren. Dakigunez, urte hartan asmo berdintsuekin zebiltzan bertze eskuindarrekin bat eginik, Jose Antonio Primo de Riverarekin bereziki, faxismo espainiarraren talderik adierazgarrien bihurtuko zen Falange delakoa egituratzeari ekin zioten.

Nafarroa mailan, 1933.ean bertan, gero Falangearen buruzagitza osatuko duten partaideen bilkuren lehenengo berria dugu. Bertzeaz bertze bildutakoen artean Pedro eta Francisco Uranga, Alberto Artundo, Silvio Isturiz eta Blas Del Cerro ditugu. Urangatarrak Gipuzkoatik bazetozen ere, laster nabarmendu ziren politika nafarrean nafarrik baina nafarzaleagoak izateagatik. Pedro Uranga errate baterako, Diputazioko idazkari eta diputatu maurista izan ondoren, 1918.eko abenduan foruen berreskurapenaren aldeko kanpaina zela eta, egindako bileretan euskal

nazionalisten aurka aritu zen, 1841.eko legearen status-aren defendatzaile sutsuenetako bat izanik. Ez da kasualitatea, familia honen partaideak nafarzalekeriaren sustatzaile kementsuena beti izan den *Diario de Navarrari* oso loturik agertzea.¹⁰

Egunkari honen inguruan gorpuztu zen faxismo nafarraren bertze sektore bat. Izan ere, 1932.eko otsailaz geroztik, bere orrialdetan atal berri bat kaleratzen hasi zen *Cimballum mundi* izena zuena, Fermin Yzurdiaga Lorca eta Angel Maria Pascual-en eskutik.¹¹ Estetika faxistaren ikurrez apaindurik zegoen orrialde osoko sail honetan arreta handia eskaintzen zioten mugimendu horren garapenari aipatutako idazleek.

Falangismoaren hasierako urratsetan hain garrantzitsuak suertatu ziren joera literaturzale eta estetizistak Nafarroaratu nahian ibiltzen ziren Yzurdiaga eta Pascual. Lehena, San Nikolasko apeza izateaz gain bere burua idazle abangoardistatzat jotzen zuen.¹² Bigarrenak, kazetaritza munduan Yzurdiagaren babespean bere lehen saioak egin bazituen ere, laster toki nabarmen bat bereganatu zuen idazle eskuindar nafarren artean.¹³ Urte batzuk beranduago Garcia Venero idazle falangistak talde honen elitismoa gaitzesten zuen erranez: *Pentsamendu falangistari sofistikazio eta barrokokeria eman nahi zioten. Hertsia-hertsia eta sasiaristokratikoa egin nahi zuten. Jose Antonio, Ortega y Gasset, eta E. D'Orsen imitazioak zituen erretorika txar baten bitartez Falangismoa desgizartatu nahi zuten*.¹⁴

Talde hauei zenbait herritan ere bertze aktibista batzuk gehitzen joan zitzaizkien. Lizarran errate baterako, 1932.ean Julio Ruiz de Aldak JONSeko talde bat antolatu zuen eta 1935.eko martxoan bere anaia Pablok, J. Arbeloak, eta A. Alonsok Falangearen lehen taldea martxan jarri zuten.

Nafarroa mailan lehen zuzendaritza politikoa 1934.ean eratu zen. Jose Antonio Primo de Rivera eta Julio Ruiz de Aldaren presentziaz buruzagitza politikorako Casanova, Arraiza eta Araoz hautatu zituzten orduko militanteek. Haren ekitaldi politikoak hitzaldietara mugatzen dira baina 1936.ean lehen ekin-tzaileak biltzen dira Blas Del Cerro, Luis Perez eta Alberto Artundok gidatzen dituzten hiru falangeetan. Errepublikako azken urte honetakoa da emakumezkoen sailaren egituratzea. Izan ere *Sección Femenina* delakoa sortu zen gerrateko aurreko hilabeteetan, Josefina Arraiza eta Mirentxu Mangado arduradun eta idazkari zirelarik.

Hala eta guztiz ere, orduko falangistek ez zuten inoiz taldeskaren marra gainditu. Karlistek, 1935.erako milaka militante zituzten bitartean, Jose Antonio Primo de Riveraren jarraitzaileak 1936.eko gerratea abiatu zenean, 600 bazkide ingurura iristen ziren. Elkarte handiena Iruñean zuten, 160 militantereekin. Eta gainontzekoak Lizarra, Kaseda, San Adrian, Mendabia eta El Buston. Ikus dezakegunez, Kaseda ezik, gainontzekoak Lizarrako merinaldekoak ziren.

Dena den, gerra zela eta Falangeak egundoko hazkundera izan zuen. Karlismoak 11.143 erreketen frontera bidali zituen bitartean Falangeak zenbait hilabete lehenago pentsaezinezkoa zen multzoa, 7.068 falangistena hain zuten ere, antolatzea erdietsi zuen.¹⁵

Gerratea suertatu baino lehen bi alderdi politiko hauen hedapena eta giza egiturak kontutan hartzen baditugu, Falangearen kopurua erabat harrigarria da ia-ia karlismoak bezain bertze jende mobilizatu zuelako. Are gehiago, gerra aurreko urteetan inolako eragin politikorik ez bazuen ere, gerra honi esker, armadarekin batera, aginte frankistaren osagai garrantzitsuen bilakatu zen. Karlismoarekin borrokatu zirenak, tokian tokiko erakundeetako bazkideak ziren bitartean, falangisten “Banderetan” ihardun zutenak, alderdiratu berriak ziren. Karlismoa XIX. mendetik zetorren pisu handiko tradizioari loturik zegoen. Batzuetan iharduera politiko parlamentarista erabili izan zuten arren, matxinada eta borroka armatuarekiko oroitzapen baikorrari eusten zion korrante politiko horrek. Monarkia alfonsinoak 1931.eko apirilean, II. Errepublikaren aldarrikapena zela eta, porrot egin zuenean, berriro karlista askori bururatu zitzaion bertze gerrate bat prestatzeko abagadune egokia zela. Hau zela medio, erregimen berriaren lehen unetatik, mugimendu honetan kokatu eta indartu ziren Errepublikaren aurkako etsai amorratuena.

Falangea, berriz, azken ordutako mobilizatuen lerrokatzearen lekua izan zen. Mugimendu honek partaide berri

eta zaharren arteko mailak eta ohoreak mugatzeko erabili zuen *Atorra* zaharraren izendatze-era nahikoa adierazgarria da bi motako militante-multzoak, betikoak eta iritsi berriak, bazirela konturatzeko. Lehenbiziko orduko bazkide gutxi ziren bitartean, gerrarekin batera falangisten taldeak anitz zabaldu eta biderkatu ziren. Lehen aipatu dugun M. Garcia Venero idazle falangistak hain zuzen ere, Falangearen gerra aurreko egoera tamalgarria oroitaraziz, 1936.eko uztailaren hazkundeaz honako hau zioen: *Falangeak 1936.eko otsaileko hauteskundeetan, urte horretako uztaillean atorra urdina jantzi zuten gizonen kopurua bezain beste boto izanzen balitu, 50etik gorako parlamentari izan zitzakeen.*¹⁶

Emendio ikaragarri hau bertze talde antifrankistei arras susmagarria iruditzen zitzaizen, erretagoardian kaleratzen ziren egunkarien artean eztabaida eta artikulu polemiko ugari sortaraziz. Erraterako, 1936.eko urriaren 29an Falangearen sorreraren urtemuga zela medio, Iruñean festa politiko bat falangistek burutu zutelako, *Jende anitz, jende anitz, agian gehiegi* izenburua zeraman artikuluarekin Eladio Esparza kazetari karlista¹⁷ ekitaldi politiko hau aipugabetzen saiatzen zen. Horrelakoak leporatzen zizkien “atorra urdinei” : *Ulertzen ezin dudana zera da: Nola Falangearen Ideariumak, inolako Ideariumak, hain denbora laburrez hain masa ikaragarriak bildu ditzakeen. Atzo martxoaren 28eko dataz oroitzen nintzen. Egun hartan Falangearen lehen eroriaren hiletan taldeska bat ginen bertzerik ez.*

*Ordutik honat zazpi hilabete igaro dira. Orain Falangeak jendea milaka karrikaratzen du. Jaungoikoa eta Espainiaren alde izan dadin.*¹⁸

Dirudienez, karlismoarekin bat egin ez zuten talde zein sektore guztiek Falangea osatzen lagundu zuten. Bertzeaz bertze hor laketu ziren *CEDA* eta *Renovacion Española*ren militanteak, talde politikoetatik at zeuden eskuindarrak, baita ezkertiar ohi anitz ere. Yaben kanonigo eskuindarraren hitzetan: *Konfesionaltasunik eza eta monarkiko ez izateak jende asko bultzatu du Falangearen lerroetara.*

Izan ere, ezkertiarrek gerra aurreko urteetan nolabaiteko indarra eta hedadura zuten eskualdeetan, Tuterako merinaldean hain zuzen ere, Falangeak karlismoak baino jende gehiago eraman zuen borrokatzera. Gainontzekoetan, Iruñerrian, Agoitz, Zangotza, Tafalla edo Lizarrakoetan karlismoa nagusitzen den bitartean, Erriberan aldiz, hau da Fronte Popularreko erakundeek eragin esanguratsua zuten zonaldean, Falangea gailendu egiten da. Arestian aipatutako artikuluan,¹⁹ Arostegui jokabide desberdin hauen azken arrazoia baldintza sozioekonomikoetan oinarritzen saiatzen den arren, gure ustez, oraindik ere, tokian tokiko ikerketa askoz ugariagoak izan beharko genituzke nolabaiteko ondorio fidagarriak erdiesteko.

Dena den, azken zioak alde batera utzita, garbi gelditzen dena da Falangeak, Nafarroa mailan, Karlis-

moaren osagarri bat bezala funtzionatu zuela. Indar tradizionalista ahula zen lekuetan, Erriberan errate baterako, Falangeak lehentasuna hartu zuen eta karlistak nahikoa garaturik zeuden herrietan, sektore despolitizatu edota eskuinaren lehengo etsai politikoak erakartzeko Falangeak izan zuen nolabaiteko zalantzagarritasun politikoa baliogarria izan zen. Noski joera honi bertze garrantzi handiko faktore bat gehitu behar diogu, errepre-sioarena, hain zuzen ere. Jakina denez, militante nazionalista, errepublikar eta sozialista anitz, 1936.eko uztailaren 19az geroztik Nafarroan gauzatu zen ingurapen politiko eta militarra zela medio, bere burua salbatzeko asmoz, behartuta joan ziren talde eskuindarren alde borrokatzera.

Horrelako militanteen bilketa askotan bortxa handiz egiten zen. Hauxe izan zen Sanjurjo Tertzioaren adibide tamalgarria. Elkarte militar honetara herri desberdinetako ezkertiarrek bidali zituzten agintari frankistek Aragoiko frontean borrokatzera. 1936ko irailaren 2 eta 10 bitartean Nafarroako zenbait herritatik (Aibar, Falces, Mendabiatik ...) mehatxupearan atera behar izan zuten ordurarte gerratetik at gelditu izan ziren ezkertiarrek. Zaragozara bilarazi ziren 700 gizonei horrela hitz egin zien Amado abizena zuen komandanteak: *Inork, inoiz, ez dizue zuen aurreko ideiez galdetuko. Gure Legioaren kantak dioenez, bakoitza nahi duena izanen da, aurreko bizitzak ez du axolik, balio duena hemendik aurrera eratu behar dugun etorkizuna da*²⁰. Hala eta guztiz ere, borroka uena iritsi zenerako agintari militarrek nahiago

izan zuten Tertzio honen *garbiketa* burutzea, 218 soldadu hilez.²¹ Dirudienez, militante ezkertiar hauek zuten asmoa, Errepublikaren aldeko armadara pasatzearena alegia, militar frankistek jakin izan zuten.

Garbi dago Falangeak izandako hazkunde izugarria oso denbora gutxi iraun zezakeela erretaguardian kokaturik gelditu zen jendearen beldurraz edo azken orduko oportunitismo politikoari esker gauzatu izan bait zen. Izan ere, oso tarte labur batez, desagertuz joan ziren Gerrako abagadune gorian altxatutako erakunde eta masen egitura gehienak. Berehala Nafarroako Falangea burokrazia batera mugaturik gelditu zen. *Arriba España* egunkarira, Sindikatu faxista eta Gobernu Zibila eta bere menpean zeuden burokratetara, hain zuzen ere.

Kazetaritzan gorpuztu ziren falangistek garatutako saio nabarietak. Jeltzale nafarrek gerra hasi arte zuten egoitza eta *La Voz de Navarraren* tresneria erabiliz, Falangeak estatu mailan izan zuen lehen egunkaria, *Arriba España* deitutakoa, hasi ziren kaleratzen faxista nafarrak, 1936ko abuztuaren lehenaz geroztik.²² Bertako falangistez gain (F. Yzurdiaga, A.M. Pascual, J.M. Perez Salazar, R. Garcia Serrano...) estatuko intelligentsia eskuindarrak (E. D'Ors, E. Gimenez Caballero, P. Lain Entralgo...) parte hartu zuen egunkari honen hasierako hilabeteetan.

Talde hau probetxatuz, Iruñeko falangistek aldizkari dotore eta elitista, *Jerarquía* izena zuena, argitaratzeari ekin zioten. F. Yzurdiagak zuzen-

dutako *Falangearen aldizkari beltz* honek bakarrik 4 ale irauin zuen. Hauetan Italiako era estetikoak eta faxismoaren ezaugarri ideologikoak isladatzeaz gain, eskuin espainiarraren mezu handinahia eta inperialistari leku zabala eskaintzen zioten.

Hala eta guztiz ere, mugimendu honek ez zuen inolako zabalpenik erdietsi eta frankismoaren aparailuarekin bat egin zuelako laster bere autonomia eta ahalmen politikoa galdu zituen.

Falangeak zuen ahulezia politikoaz jabetzeko, nahikoa adierazgarria da lurralde honetako goi-mailako erakundeei so egitea. Bai Nafarroako Diputazioan bai Iruñeko Udalean gorpuztu ziren aginte berrietan, monarkikoak nagusi ziren. Errate baterako, Iruñeko lehen udal frankista 1937ko otsailaren 5ean osatu zenean, 18 zinegotzietatik 15 tradizionalista, eta gainontzeko hiruak, jadanik desagerturik zegoen CEDAko partaide ohiak ziren. Falangeak berriz, ez zuen inolako ordezkariarik izan.

Gerratea amaitu zelarik, lehen aldiz, Nafarroako hiriburuko udalean 4 zinegotzi falangista agertu baziren ere, karlistek gehiengoari eutsi zioten, hamalau eserlekurekin²³.

Desoreka politiko honez gain, frankismoaren urteetan, eskuindar nafarren bilakaera ez da batere homogenoa izanen. 1937ko apirilaren lehenean, Frankok eraginda, egituratu zen erakunde bateratu berria, FET y de las JONS delakoak, bai Falange, bai karlismoaren sektore ortodoxoenak, aginte politikotik kanpo utzi zituen.

Ildo honetatik oso adierazgarriak dira Manuel Hedilla, M. Fal Conde eta Javier Borbon Parmak pairatu behar zituzten atxiloketa zein atzerriratzeak. Gerraren egoera zela medio, arazo horiek ez zuten eragin handirik izan talde eskuindarren arteko harremanetan. Baina gerratea amaitu zelarik, Falangeko buruzagi gehienak diktadurak ezarritako egitura burokratikoetan (CNS, ministraritzetan, komunikabideetan, Gobernu Zibiletako sare burokratikoetan...) kokatzen ziren bitartean, karlismoaren baseak frankismoarengandik urruntzen hasi ziren.

Bilboko Begoñako basilikan, 1942ko Abuztuaren 16an falangista eta karlisten artean gertatutako istiluak urruntze-prozesu honen abiapuntu nabarmentzat har ditzakegu. Izan ere, gertaera horien ondorioz, zinegotzi karlista gehienek dimisioa aurkeztu zuten²⁴. Hemendik aitzinat, karlismoak zuen batasun politikoa apurtu egiten da. Buruzagi batzuek (Del Burgo, Sagües, Añoveros, Ozcoidik..) status-quo frankistaren barruan jokatu duten bitartean, bertze sektore batzuek, pixkanaka-pixkanaka, sistema politiko honen mugak zeharkatuko dituzte oposizioari ekiten hasteko. Eskuin muturreko erreketek izandakoak sozialista eta abertzale bihurtzeko bizpahiru hamarkada oraindik falta baziren ere, hauexek izan ziren eraldaketa izugarri honen lehen urratsak.

Frankismoaren bitartean karlismoak urtero burutzen zuen masen ekintzarik garrantzitsuenak, hau da Montejurrako kontzentrazioak, garbi eta argi azaltzen digu alderdi honek izan zuen

aipatutako aldaketa politikoa. Hasiera batean, 1936-39 eta XIX. mendeko gerrateetako karlisten oroimenez, ekintza erlijiosoaren moduan, tontorrerainoko gurutze bidea eginez, burutzen bazen ere, 1960.eko azken urteetatik aurrera, egun osoko manifestazio antifrankista bilakatu zen.

Aldaketa harrigarri hauek burutzeko, frankismoak eskaintzen zion egoera bereziaz baliatu zen karlismoa. Alderdi politikoak erabat debekaturik zeuden erregimen honetan, karlistek, Nafarroan bereziki, erakunde legal orok dituzten bitarteak erabil zitzaizkion beren iharduera politikoei eusteko. Tokian tokiko elkarte eta egoitzak ez ezik (*Circulo Carlisten* sarea,) aldizkari legal batzuek (*Esfuerzo Común*, *Montejurra*) edota egunkari batek ere (*El Pensamiento Navarro*) urte anitz izan zituzten ideia eta iharduera karlistak zabaltzeko.

Are gehiago, zenbait legislaturetan ere, aspaldidanik zetorren ohitura bati jarraituz, Nafarroaren aldetik, Madrilgo Gorteetara joateko zenbait parlamentari karlista hautatu zituzten, instituzio honetan bertan gauzatu zen oposizio gisa funtzionatu zuen taldean parte hartuz²⁵. Karlismoaren baitan, bertze sektore eta alderdi politikoetan bizi izan zen antzeko prozesuren bat ere sumatzen da. Politikoki diktaduratik urruntzen den neurrian, ideologikoki ere korrante kontrajarrrietara, sozialismo autogestionario delakora, hurbiltzen doa.

Zer esanik ez, euskal arazoari dagokionez. Izan ere, politika eta ideologia aldetik ezezik baita borroka-

-motetan ere, belaunaldi karlista gazteek sektore abertzaleengana jo zuten, G.A.C.²⁶ bezalako erakundeak sortuz edo lehen agitz pentsaezinezkoa zen alderdi karlista, maila batzuetan bederen, euskaltzaletuz.

Eraldatze politiko hau ez zuten kontraesanik gabe burutu. Buruzagi karlista (Larrainzar, Arellano, ...) batzuek, alderdia utziz, beren ezaugarri nabarmenetakoari, arazo dinastikoarenari alegia, bizkarra eman nahiago izan zuten, monarkia alfonsinaren aldekoekin bat egiteko. Era berean, bertze zenbaitek karlismoa kutsu ezkertiar eta abertzaleko jokabideak bereganatzen zituen heinean, alderdia uzten zuten, trantsizioko urteetan erakunde eta alderdi eskuindarretan (UCD, UPN...) beren burua plazaratzeko. Azken batean, karlismoaren patua Bianako printzearen harmarriak zioenaren antzekoa, *bi aldeetatik atxikia* izan da. Ezker zein eskuin aldetik izugarritzko erauzpenak izan ondoren, gaur egun, ia-ia desagertutzat jo dezakegun taldeska politiko bait da.

Hala ere beldur gara, karlistek eta mota guztietako eskuindarrek historikoki defenditu dituzten ideiak, erakunde eta eliteak ez ote dirauten aginteko maila guztietan: Zenbait komunikabidek duten errol politiko eta ideologikoa somatuta, Elizak duen zama, *Nomenklatura* abizenen errepikapen eta *birziklapen* politikoa, eta Nafarroako Foru-Hobekuntzak suposatu duen egoera administratibo berezi zein susmagarria... ikusirik, haizeak kontserbadoreen alde jotzen jarraitzen duela dirudi.

Oharrak

- 1 Altafaylla Kultur Taldea; *Navarra de La Esperanza al Terror*. Tafalla, 1986.
- 2 Julio Arostegui: “El voluntariado de Navarra en el ejército de Franco”, in *Sistema*, 1982ko martxoa, 47. zenbakia.
- 3 Ibidem.
- 4 Jaime Del Burgo: *Conspiración y Guerra Civil*. Madril, 1970. Antonio Lizarza: *Memorias de la Conspiración*. Iruñea, 1954. R. García Serrano: *La Gran Esperanza*. Bartzelona, 1983. Jose Maria Iribarren: *Mola. Datos para una biografía y para la historia del alzamiento nacional*. Zaragoza, 1938.
- 5 J. C. Clemente: *Historia del carlismo contemporaneo, 1935-1972*. Bartzelona, 1977. M. Blinkhorn: *Carlismo y contrarevolución en España*. Bartzelona, 1979. Eta bereziki, Julio Arostegik kaleratu berria duen *Los combatientes carlistas en la Guerra Civil Española 1936-1939*, Madril 1991.
- 6 Ricardo Chueca: *El fascismo en los comienzos del regimen de Franco. Un estudio sobre FET-JONS*. Madril, 1983. Sheelagh Ellwood: *Prietas las filas*. Madril, 1984. Stanley G. Payne: *Falange. Historia del fascismo español*, Madril, 1985.
- 7 Julio Ruiz de Alda: *Obra completa*. Ikus Pablo Ruiz de Aldak egindako hitzurre biografikoa. Madril, 1939.
- 8 Ibidem. Juan Antonio Ansaldo: *¿Para qué?*, Buenos Aires, 1951. Ramiro Ledesma Ramos: *¿Fascismo en España?* Bartzelona, 1968. Stanley G. Payne: *Falange. Historia del fascismo español*. Madril, 1985.
- 9 *El Fascio*, 1933ko martxoaren 16a.
- 10 Egunkari honen sortzaileen artean Miguel Uranga eta Pedro Uranga ditugu. Beranduago, frankismoaren bitartean, Jose Miguel Uranga “Ollarra”, horien biloba, urte anitz egunkari honen zuzendari izan da.
- 11 J. Del Burgo: *Conspiración y guerra civil*. Madril, 1970.
- 12 1926ean Iruñeko lore-jokoak irabazi zituen “Poema de Navarra” deitutako olerkiarekin.

- 13 *Arriba Española*ren zuzendari izateaz gain, *Jerarquiaren* argitaratzaile izan zen. *Vertice*, *Vida Vasca*, eta *La Estafeta Literariaren* kolaboratzaile. Urte batzuk beranduago, frankismoaren bitartean, argitara eman zituen honako liburuak: *Capital de tercer orden* (1947); *Glosas a la ciudad* (1963); *Silva curiosa de historias* (1987)
- 14 Garcia Venero M. *Falange en la guerra de España. La unificación y hedilla*. Paris, 1967.
- 15 Julio Arostegui: "El voluntariado navarro en el ejercito de Franco" in *Sistema*, 1982.eko martxoa. 47 zenbakia.
- 16 M. Garcia Venero: *La historia de la unificación. Falange y requete en 1937*. Madril, 1970.
- 17 Berak artikulu hau idatzi zuenean karlistatzat jotzen zuen bere burua, nahiz eta *independiente* bezala aurkezten zen *Diario de Navarra* lan egin.
- 18 *Diario de Navarra*, 1936ko urriaren 30a.
- 19 J. Arostegui: "El voluntariado de Navarra en el ejercito de Franco" in *Sistema*, 47 zenbakia. 1982ko martxoa.
- 20 Ikus "El Tercio de Sanjurjo" in Altagaylla Kultur Taldea: *Navarra, 1936 de la esperanza al terror*, Tafalla 1986.
- 21 Ikus *Ibidem*.
- 22 Beranduago, antzeko taktika erabili zuten gainontzeko lurraldeetan beren egunkariak plazaratzeko. Gipuzkoan, *La Voz de España* eta *Unidad*, eta Bizkaian, *Hierro Euzkadiko* inprimategian.
- 23 Jose Garran Mosoren alkatetza (1940ko apirilaren 23tik 1941eko abuztuaren 6ra bitartekoa)
- 24 Iruñeko Udalaren Aktak. 208 zenb. liburua. 1942ko irailaren 9a.
- 25 Auxilio Goñi Donazar, Jose Angel Zubiaur Alegre "Trashumantes" delako taldearen partaideak izan ziren.
- 26 Grupos de Accion Carlista.